



MENDIA PASIO

Pakistanera joan bezperan,
Benantxio Iruretarekin
mendia hizpide **20**



Miele etxetresna elektriko ekologikoak Bere ezaugarria kalitatea da

Kontsumo baxuko baloreak izateagatik ezaugarritzen dira Miele garbigailuak. W1945 Ecoconfort garbigailu berria Eco feedback programarekin hornituta dago. Eta horri esker, garbiketaren hasieran kontsumoaren aurreikuspen bat egiten du eta amaieran, izandako kontsumo zehatza azaltzen du, litro eta KWHtan. Honela, erabiltzaileak ur eta elektrizitate kontsumoa ezagutu eta kontrolatu dezake.

Mielek kalitatea berezkoa duelako. Eta naturala, ekologikoa izatea delako.

Aukeratu Miele. Aukeratu Kalitatea

Miele banatzaile ofiziala:

**MILAR
LARRAMENDI**

Milar Larramendi
Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia
Tel. 943 85 18 97



**30 € -tik gorako
erosketa
egiteagatik,
Milar kamiseta
teknikoa opari**



Miele

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
(Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarria@topagunea.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 131.a (2011ko abuztua)
Urtea. XII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730792 /
oalegria@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilerok
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. A. Agirrezabala
Web orrialdea.
www.uztarria.com

**Uztarrria herri aldizkariaren
laguntzaileak** (erakunde
publikoak)



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Uztarriak Oharra. Uztarrria
Bai Euskarari Komunikazio
Taldea ez du
bere gain hartzen
herri aldizkariaren
adierazitako
esanen eta
iritzien
erantzukizunik



2011KO ABUZTUKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Egiten al
duzue saninaziotan
famiako bazkaria? **13**

mamia

Aitor Bengoetxea.
Sanagustin
kulturgunearen
kudeaketa berriaz. **04**
Klik! Errekortarien
eguna argazkitan **16**
Klikmetroak.
Kilometroen jaia
antolatzen den
laguntza behar **24**

jakiteko

Atzera begira. Garai
bateko zineaz eta
zentsuraz, Bernardo
Etxeberriarekin **34**
Zu zeu. Luis Olaizola,
mandazaina **37**

Ba al dakizu zestoako gurutzeaga
frontoia J. A. Kanpos *ttantto* azpeitiarrak
inauguratu zuela, duela 105 urte? **Uztarrria**

egin zaitez bazkide Uztarrarian




943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarraren produktuak ere
eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte
12 liburu (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak
atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.157 bazkide
gara dagoeneko Uztarrarian;
eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.
106.400 euroko aurrekontua
du Uztarriak 2011. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Amaia Garmendia eta Enkarna Arregi (liburu gehiago aterako ditu)

AITOR BENGOETXEA ‘ONDARRU’

Sanagustin Kulturgunearen kooperatibako koordinatzailea

“Denen ekarpena behar dugu”

Kultur Mahaiak hartu du jada Sanagustinen kudeaketa. Kulturgune erreferentzial bihurtzea dute orain erronka, “bizia eta dinamikoa”. 📌👁️ Mailo Oiarzabal

Sanagustin Kulturgune osatua uztailaren 22an jarri zen abian. Lau egun lehenago, estreinaldi horren bezperetako lanen eta azken ukituen buruhausteen artean egon zen Uztarriarekin Aitor Bengoetxea *On-darru*. Lanez eta kezkaz gainezka, baina ilusioa eragiten dion proiektuari ekiteko gogoz.

Zer balorazio egiten duzue orain artekoaz?

Balorazioa positiboa da, azkenean lortu dugulako herrian kulturaren erakusleho izango den tresna bat, Azpeitian aspalditik behar zena. Orain tresna hori zaindu eta elikatu egin behar da. Irekierarekin ez da eraikinaren bizitza bukatzen, hasi egiten da. Denetariko emanaldiak egin dira. Kudeaketa

Udalaren esku egon da, Kultur Mahaiaren laguntzarekin. Modu probisionalean egon da eta, zegoen moduan egoteko, nahiko ondo funtzionatu duela uste dut. Neurria hartzen ibili gara, eta neurri-hartze horretan zaplastekoak hartzen dituzu, batetik eta bestetik, karrilean sartu arte.

Herriko talde asko pasatu dira hilabeteotan Sanagustinetik. Zer balorazio jaso duzue haiengandik?

Gauza asko kolean, arkupetan, hotza pasatzen eta bitarteko nahiko xumeekin egitera ohituta daudela kontuan hartu behar dugu. Hortik pixka bat baldintza hobeetara pasatu dira eta hori erronka izan da guztiontzat, baita taldeentzat ere. Bitarteko gehia-

||| DATUAK |||||

||| **Jaio.** 1981eko irailaren 26a.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizi tokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.** Arte Ederretan lizentziatua, Sanagustin Azpeitiko Kulturgunea Kooperatiba Elkarte ko koordinatzailea da.

go izanda, taldeek ere gehiago ematen dute, gehiago prestatzen dute emanaldia, gehiago entseatzten dute; anbizioa, modu sanoan ulertuta, gehiago pizten zaie. Bitarteko txukunak daudenean, jendeak beste jarrera bat hartzen du. Balorazioaz beraiei galdetzea hobe, baina nik jaso dudana oso ona izan da. Taldeek prestutasun handia erakutsi dute, ireki zen unetik. Zazpi hilabetetan, talde guztiak ez dira pasatu, baina asko bai.

Eta ikusleen harrera?

Jendeak bazeukan horrelako gune baten gogoia eta beharra. Hor hiru elementu daude, hartzailea, igorlea eta mezua, eta lotuta daude: igorlea gustura, mezua txukunago bidaltzea izan duela; eta hartzaileak, herriak, ikusentzuleak, harrera oso ona egin dio. Askotan bete da; baita jendea kanpoan gelditu ere, edukiera kontuengatik. Erantzuna, normalean, oso txukuna izan da. Sanagustinek halako iman bat ere badu: herriaren erdi-erdian, jendeak espazio horrekiko lehendik ere baduen lotura... Gainera, jendea zorrotz ere azaldu da alde batetik, esijituz; eta poztan naiz, hemen esijitu egin behar da, diru publikoa delako, herriarena eta



Aitor Bengoetxea sarrerako atearen ondoan, Sanagustin atzean duela.

herriarentzako, eta gauzak ahalik eta txukunen egin behar dira.

300 lagunentzako edukiera du kulturguneak. Horrela ondo, gutxiegi...?

Eserita bai, 300 sartzen dira ondo, baina tente erdi huts gelditzen denaren sentazioa ematen du. Edukiera hori handitzeko jada lanean ari gara, eta espero dugu hilabete gutxi barru 460-480 lagunentzako edukiera izatea. Eserita 300ekoarekin jarraituko dugu, baina bestela ia 500eko kopuru horrek aukera polita ematen digu.

Orain erronka berri baten aurrean dago Sangustinen proiektua: Kultur Mahaia kudeatuko du, ostalaritza zerbitzua barne.

Beti esaten dugu, guretzat titularrak ez da 'Sanagustinen taberna irekitzera goaz', ez: Sanagustinen kudeaketa Kultur Mahaia hartuko du, kooperatiba horren bitartez, eta horren barruan ostalaritza zerbitzu bat eskainiko dugu. Hori, garbi. Beste zerbitzu batzuk ere eskainiko dira, egunero egongo da irekita; programazioa ere, espero, txukunagoa eta osatuagoa izatea. Taberna zati inportantea da, diru-iturri izango den aldetik, baina ez da taberna bakarrik. Dena da erronka, dena.

Zertan nahiko zenukete narbarmintzea, kudeaketa berria?

Kulturgune erreferentzial bat izatea da gure nahia. Egunero irekita egongo da, horrek diru-iturri bat suposatzen du, eta dirua bertan

inbertituko da beti; irabazi asmorik gabeko proiektua da, autogestio formula bat. Kudeaketa eskaintza guztian nabarmenduko da. Kultur eskaintza hobea, programazio aldetik. Euskara gune erreferentziala ere izango da; euskararekin lan asko egitea espero dugu, ez hitz egitea bakarrik. Mediateka bat, erakusketak ere hobeak izatea...

Planteatu duzuen kudeaketa ereduarekin desadostasunak eta kritikak ere plazaratu dira.

Gure kudeaketa eredu, eta hori ibiliek erakutsiko du, nahiko horizontala da. Kudeaketa eredu bizia eta dinamikoa egin nahi dugu, bertan jasoko dena bertan inbertituz. Gardena izatea nahi dugu, guztiz, eta horregatik proposatzen diogu Udalari jarraipen batzordea osatzea. Sare sozial handi bat dago hor atzean, Kultur Mahaiko taldeekin egina; hau ez da bi pertsonaren buru-berotze bat, denbora askoan zehar Kultur Mahaian landutakoa baizik. Klabea da herriko 25 kultur talderen, herriko ia talde denen, babesa duela. Eta, aurrera begira, guztiz irekia eta denen aportazioa behar harko duen proiektua da, baita kontra azaldu diren horiena ere. Denen ekarpena behar dugu.

Soreasu ere ireki da eta, bat batean, ezer ez izatetik bigune garrantzitsu izatera pasatu da Azepeitia.

Gu lehendik Sanagustinekin ari ginen lanean, joan den bost urtean proiektua aztertu dugulako, ekarpenak egin ditugulako, ekipamendu aldetik hobekuntzak, obren jarraipena... Gu harekin geunden, eta horretan zentratu gara. Bestea fase ezberdinak ziren, oso proiektu handia... 2006an lokalen partiketat bilera bat egin zen, baina harrezkero ez dugu informazio gehiegirik jaso. Gure erronka, orain, Sanagustin da, baina dudarik gabe aztertu behar direla Soreasurekin dauzkan sinergiak, eta koordinatu egin behar direla.✘

“Titularra ez da ‘sanagustinen taberna irekitzera goaz’”

“2006tik ez dugu soreasuri buruz informazio gehiegirik jaso”

Aitonen gerra

U

da oporraldi eta lasaitzeko garai bezala ulertzen dugu gaur egun. Baina duela 75 urteko uda ez zen ohikoa izan. Gerra luze eta odoltsu baten hasiera eman zen orduan. 1936ko Europan garai nahasiak ziren haiek, krisi ekonomiko bortitza eta demokraziaren prestigio galtzea zirelarik ezaugarri nagusiak. Demokraziaren alternatiba bezala aurkeztzen ziren bi ideologia elkarren aurka borrokatzen ziren: faxismoa eta komunismoa. Baina Europa guztian eman zen gerra zibil bakarra Espainian eta luzapenez gure artean eman zen. Aspaldiko ezinukiak azaleratu ziren eta okerrena, familia asko bitan banatu ziren.

Aditu gehienek diote gerra zibilak bortitzek direla, anaiarteko gerrak direlako. Ze arrazoi duten horrela diotenek!! Familia bakoitzaren baitan gertatzen da zatiketa. Mahai berdinean jan dutenak bapatean aurkako lubakietan aurkitzen dira borrokan eta baten zorigaiztoa bestearen ongizatea izan daiteke. Ze zaila izan behar duen horrelako gerra batek sortutako zauriak sendatzea.

Euskadiko eta luzapenez Azpeitiko politikaren bilakaerak gainera horrelako egoera asko gertatzea ahalbideratu zuen. XIX. mende bukaeran Sabino Aranak sortutako ideologiak bitan banatu zuen ordurarte elkartua zegoen familia politiko euskalduna: karlismoa. Zatiketarako arrazoi nagusia ez zen izan erlijioaren funtzioa baizik eta bakoitzak aitortzen zuen aberria baizik. Bere buruari karlista deitzen jarraitu zutenentzat aberri hori Espainiak izaten jarraitzen zuen eta, aldiz, jeltzale deitu ziotenentzat aberria Euskadi zen. Hora hor gatazkaren muina.

Nire aitonaren familian ere zatiketa eman zen bere burua abertzaleztat eta karlistatztat zutenen artean. Lau anaia eta bitan banatuta. Hori nire birramonaren zorigaiztoa. Bere familia bitan banatuta, nire aitona eta beste anaia abertzaleen aldean eta beste biak karlista sutsuak. Elkarren aurka borrokatu ge-



markel mendizabal

III Mitoak eta gezurrak alde batera utzita gertakizunen egiak hitz egin dezala

rran, batek bere bizia galdu bertan, baina gerra eta gero zer? Frankoren erregimen berrian bizitzak aurrera egin behar eta familiak ere berreraiki egin behar, ze erremedio!!! Zailena, galtzaileen kasuan, eta horrela zioen nire aitona, herriko jauntxo berrien gehigekeriak eta bidegabekeriak pairatu behar.

Nere aitona familiaren kasuan lortu zuten gerrak familia ez desegitea, liskarrak alde batera utziz baina bakoitzak bere orimenak ondorengoei adieraziz.

Gainditu gabeko erronka

2007an Espainian onartutako Memoria historikoaren Legea-k erakusten digu zein den gainditu gabeko erronka: gorrotoak alde batera uztea baina oroimenak eta egi historikok deuzestu gabe. Irabazleek 40 urtez zabaldutako mitoak eta gezurrak alde batera utzita gertakizunen egiak hitz egin dezala, egia jakitea baita justizia egiteko lehen pausoa. Bide honetan erakunde publikoek zeresan handia dute. Hildakoak bere familiei itzuli eta egia guztia kaleratu dadila. Hori da gure aitonen gerra hura benetan bukatzeko modu bakarra. Hori eta gehiago zor diegu!✘



altzariak & sukaldeak

**“ETXEBELTZ –
IZARRA”
ESKAINTZA ETA
PROMOZIO
BEREZIAK.**

**“24 hilebete
interesik gabe”**



- Sukaldeak
- Sofak
- Haurren logelak
- Armairuak
- Egongelak
- Koltxoiak
- Logelak
- Bainuak



1. SOLAIRUAN GAUDE

ARRETXE KALEA 9 - 1. SOLAIRUA
20730 AZPEITIA (GIPUZKOA)
TEL. 943 85 72 44 · FAX. 943 85 13 14
urrategideko@urrategi.eu
www.mueblesurrategi.es



Zenbait konpromiso

Elizako ezkontza mota standarrean, konpromiso, hitza aipatu ohi dugu. Hitz hori ez dakit nori zuzendua dagoen gehiago, ezkontzen direnei edo bertara doazen gonbidatuei. ezkontzara baino gehiago bazkarira doazenei.

Horrelako ezkontza baten aurrean, jendearen artean gehien entzuten dena, da: "Jo, aurten hiru boda zaukeat...". Patrikarekin gehiago pentsatzen dugu holakoetan, garai hauetan gehiago; hipoteka, kotxea, hau eta bestea. Gutxi entzuten da –lagun bat badudan arren– "Hau ona! Aurten hiru boda zaukeat! Kriston goue zaukeat hirureta juteko!".

Azpeitiar gaztelanieraz "inbitau" hitza, denok ulertzen dugu, normalean behintzat, "trago batea inbitau", "afai batera inbitau", zeinak esan nahi duen, batek besteari zerbait eskaintzen diola bere kontura. "Boden" kontuan, denek dute gonbidapena baina paradoxikoki guztiak dakite buruko 150€ dela.

Ezkontzak mundu osoan zehar egin izan dira eta egiten dira. Erljio guztiak dituzte beraien errituak, budistek, hinduistek, musulmanek eta ijitoek. Erritua eta festa elkartzen dituzte. Batzuk xumeak dira, beste batzutan festak egunetan irauten du. Ez dudana argi, "inbitaziyuen" kontua hemen bezala egiten duten.

Lehenago ezkontzak VS oraingoak

Euskal Herrian, lehen, zentzu gehiago zuten ezkontzek, eta opariak eguneroko beharretara zuzenduak zeuden, arreoak deitzen zitzaizkien: izarak, altzariak, arropa eta horrelakoak ziren. Baserrietakoez ari naiz batipat. Jendea elizara erabat joaten zen, eta agian astegun buruzuri batean, goizeko zazpitan eta neguan ezkontutakoak ere baziren. Beltzez jazten ziren emaztegiak. Igandean edo bazkaria egiten zen eta festa, batzuetan pare bat egun luzatzen zena. Familiek elkar ezagutu eta elkarrekin ospatzen zuten eguna. Gogogarria izaten zen guztientzat, horrelako jan



iosu salegi

Ulertzen ez dudana da konpromisozko inbitaziyue, behin eta berriz eskaini, eta elkarrekin ezkontzen ez diren bi hitz

edana ez baitzen eguneroko kontua, ezta gutxiago ere.

Gaur egun elizako ezkontza errituak zentzu estetikoak du ezkonkideentzat, oso gutxi zapaltzen baitute eliza. Jende morderoa, jantziak, eskenatokia klik, klik flasha!

Badirudi gero eta gauza gehiago antolatuta eta orduan eta konprometituago sentitzen garela. Eta gero erromantizismo hitza aipatzen da. Ba al da erromantizismorik guztia hain kalkulatu, kopiatua denean? Ez al dira erromantizismoaren esentzia sorpresa eta originalitatea?

Lagun arteko bazkariak beti dira ederrak, eta giro aldetik, gonbidatuaren ikuspegitik ezkon bazkaria horietako bat gehiago dela esango nuke. Hainbesteko handitasunak xarma ere kentzen dio, saturazioz sudurzulotatik perzebeak ateratzeraino eta gorputzeko zulo guztiak isteraino patez.

Ulertzen dut norbaitek bazkari batean 150€ gastatzea benetan gustatzen bazaio, batek Arzakengatik gastatu ditzakeen moduan edo Getarian mariskoa jaten. Barru-barruan ulertzen ez dudana da konpromisozko inbitaziyue, behin eta berriz eskaintzen den zerbait, eta elkarrekin ezkontzen ez diren bi hitz. Kontzeptu berezia hauexa.*





ondo pasatu
saninaziyuek
2011

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK



GORA. Eskaintzak euskaraz.

Bejondaiola erakuslehoian eskaintza hauek euskara hutsean egitea erabaki duen dendari honi. Euskararen ofizialtasuna lortzeko bidean urrtas ederra! **Uztarria**



BEHERA. Iragarkiak euskaratuta, askoz hobe!

Mota guztietako autoak, furgonetak... erosteko prest dago mutil hau. Berak, berriz, iragarki hau gaztelaniaz zabaldua euskara saltzeko dauka. **Uztarria***



Skandalue elektrotzaranga.

ESANA DAGO

“Oso gustura gaude. Iazko festetarako kalejirako zerbait egitea pentsatu genuen, eta poliki-poliki forma hartzen joan da, eta egia esan, oso ondo. Aurten ere harrera bera espero dugu”

SKANDALUE
elektrotzaranga

“Gure kontzertuetara 200 eta 500 pertsona inguru etortzen dira, musika mota gustuko dutelako. Saninazioetan badakigu 3.000 izango direla”

FRIDAY'S CREW
musika taldea

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

ORKATX KULTUR ELKARTER
Erdi Kalea, 24 • Tel. 943 15 00 06

MADINA
ERRADIOLOGIA
• Hartz erradiologia digitala
• Ortopantomografiak eta teleradiografiak
• Inplantologiarako 3D hartz eskanerrak (100% maxilar pelikula bahoitzeho)
• Ekografia, mamografia, hezur densiometria (Osteoporosi azterhetetah)
Toribio Etxeberria 4-1^o Ezh - 20600 - EIBAR tel. 943 202857



txetxu urbieta

Gazi geza

Urria garestia da eta ugaria merkea. Beraz, azpeitiarra merkea da, azpeitiarra nonahi eta noiznahi aurki liteke. Mendian gibelurdina nekez eta gutarra erruz. Itsas ertzean aparkalekurik ez eta marmoka adina xapo.

Abuztuan, inperioko metropolia hutsik utziz kolonietara jo zale gara. Koloniarik azpeitiartuenetakoa Zarautz izango da. Gertu, bertatik bertara, gustuko duguna nahieran izateko aukera paregabea. Eguraldiak lagunduz gero, munduan parekorik ez duena.

Natiboak ere jende jatorra. Eskuzabal hartzen gaituzte, bertako sentiaraziz. Urte askotako harremanak elkarbizitza errazten du. Elkarrekin eroso sentitzen gara. Urkoaren berezitasuna xelege egiten zaigu baina haiek eta gu uztarri berean lotu eta aurrera egiteko moduko idi pareta gara.

Ondo konpondu arren, natibok beti gogoraziko digute inbaditzaile garela, udan, gurea ez eta beraiena den zerbaiten jabe egiten garela. Alegia, teoriar lurtiar ororena den hondartza, beraiena dela. Eta betikoa entzun behar, egunen batean peajea jarri beharko digutela. Nirea niretzat eta bestena erdibana, jainko kontsumista berriaren legea.

Inbaditzaile fama izan arren, gu ere jende jatorra gara. Trukean oinarrizten da gure indarra. Bi hila-beteko ur gaziaren truke guk beraietara urte osoko ur geza ematen diegu. Eta sekula santan iturria ixteko mehatxurik egin gabe; eta Saninaziyuetan peajerik gabe gure herrira poltxikoak beteta etortzeko gonbite zintzoa eginez.

Ur gazi ugaria merke eta ur geza urria garesti. Beraz, azpeitiarra merke ala garesti?*

IKUSTEKO!



▲ FAROLAREN BABESEAN.

Kale-argiaren altzoan, goxotasunean, egin dute kabia txoritxo hauek. Udaleko langileak argiteria ikuskatzen ari zirela, barruan lau kabi zituen kale-argia bilatu zuten, Olazko ermita inguruan. Ez dakite noren kabia izan daiteken, baina baliteke txolarrearena izatea. Udaleko langileen esanetan, "ez da batere ohikoa halako kabiak bilatzea". 📷📹 Ainitze Agirrezabala*

UZTAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Badatorrela... abesti eta guzti!

KILOMETROAK. Saninaziyotan eta oporretan pentsatzen dugun bitartean, ziur Ikasberri Ikastolakoak Kilometrotarako falta diren egunak zenbatzen dabiltzala. Ekitaldi pila egin dute azken hilabeteetan, baina gehien itxaroten den uea udarekin batera etorri zaigu. Kilometroen abestiaren aurkezpena. Ze esatek! talde azpeitiarrak eta azpeitiar askoren kolaborazioarekin. Klik bat eginda aurrera goaz...



alex silva



A zer... animalikeria.

ARTEA. Oreina metroan, ostruka lantegian... Mikel Uri-betxeberria urrestildarraren artea ulertzeko modua da. Donostiako KUR galerian ikusgai izan da bere obra eta originaltasuna eta irudimena ez zaizkio falta. Gure herriko parajeren bat ere ikus zitekeen errinozeronte batekin.



Sanagustin Kulturgune osatua zabalik!

KULTURA. Urteetan azpeitiarren amets izan diren kultur proiektuak zabaldu dira azken hilabeteetan. Kultur espresiorako aretoak falta ziren herrian eta orain, Soreasu eta Sanagustin zabaldu dira. Hori bai, oso kudeaketa desberdinekin proiektu bakoitza. Santiotarako Kultur Ma-

haik kudeatzen duen Sanagustin zabaldu da. Abenduan inauguratu bazen ere, herri mugimendutik sortu den indarrak kudeatuko du kultur-gunea aurrerantzean eta egindako apustuen artean, bertan zerbitzu integrala eskaintzeko taberna jarri dute. Ea urte askotarako den! ✘

INKESTA

Eqiten al duzue saninazioetan familiako bazkaria?

 Ainitze Agirrezabala

J.M. ZUBIZARRETA

erretiratu



“Festetan ez naiz herrian egoten, Errioxara joaten naiz. Sasoirik ez dugu festarako. Garai batean desiratzen egoten ginen saninazioak noiz helduko, eta gonbidatuak izaten genituen etxean, bazkaritan, eta ondoren korridara joaten ginen”.

KARIN KUPCHIK

langilea



“Senarra eta biok taberna dugu, eta familiako bazkaririk egiterik ez dugu. Santio eta saninazioetan lana egitea tokatzen zaigu guri. Zer egingo dugu ba!”.

AINZANE ARRUTI

langilea



“Saninazio bezperan egiten dugu guk bazkaria. Tropel handia elkartuko gara, dozena bat lagun eta umeak. Egun horretan zerbait berezia prestatu beharko dugu jateko”.

AMAIA GARMENDIA

langilea



“Anaiarrebak elkartzen gara saninazio egunean bazkaltzeko. Mahaikada ederra, dozena bat lagun. Bazkari berezia egin eta bazkalostean kantuan egiten dugu.”

Arroxak itsasbeherarik ez

Alarmak hamaikagarrenez jotzean esnatu zara. Hau buruko mina! Zertan ibili hintzen atzo? Pelikuletako flash-back bat balitz bezala, burua aurreko eguneko irudiak gogoratzen hasi zaizu. Txosnetako jolasak, bazkariko arroxak, kalejira... Gogoratzen al haiz? Atzo Saninazio bezpera zen, eta beste urte batez marea arroxan murgildu zinen.

Noiz erretiratu zinen? Ez zara gogoratzen, eta ezta askorik inporta ere. Eta orain, ze ordu da? Erlojuari begiratu diozu, berandu xamar. Salto batez, ohetik altxatu eta irri txiki bat egin duzu. Txomingero Bluxarroxen I. Bazkaria zain daukazu erdikalean, honezkerok hastear.

Urte kopuruz zaharragoa den batekin izandako berriketaldiaz gogoratu zara. Orain dela ez asko Saninazio egunez ajea pasatzera hondartzara joaten zela kontatu dizu. Herrian egunez ez zegoela ezer, eta denbora gutxian, festetako eskaintza gauetiko egun osokoa izatera pasa dela, herri bazkariarekin



yuri agirre

lehendabizi, bakailau txapelketarekin ondoren eta Txomingero Bluxarroxen bazkariarekin azkenik.

Jantzi dituzu loradun prakak, handiegi duzun alkandora zaharra, “Gora Euskadi!” txapela eta begizuloak tapatzeko betaurrekoak; txomingero konplettoa. Kalean batzuek harrিতa begiratu dizute. Zuk, beraien piurei erreparatu diezu: soineko dotoreenak emakumeek, eta alkandora garestienak gizonek. Hori al da ba festarako arropa? Kalimotxo zikindu ezin dena? Oraindik batzuek festak euren usteko estatusa erakusteko erabiltzen dutela dirudi, azpeitiartasuna. Eta arropa dotorerik ezean, Puerto Ricora joan gabe etxean geratzea hobe.

Baina arroxak ez du itsasbeherarik, eta geroz eta gorago doa, bazter guztiak bustiz. Saninazioak, bulego batetik diseinatzetik arkupean asanblada bidez kudeatzera pasatu diren heinean, handinahikeriatik herrikoitasunera igarotzen ari dira. Herritik, herriarentzat, gozatu olatuaz!*

galdetzen hasita, zenbat metro egingo ditu jendeak interneteko klikmetroak-en urria bitartean?  Uztartaria

Ramadana

San Ignazio bigarrenean ekingo diote mundu guztiko musulmanek Ramadanari. Euren “hilabete nagusi” honetan zehar, eguzkia agertzen denetik ezkututzen denera, musulman helduek –gaixo, zahar eta haurdunek izan ezik– ez dute ezertxo ere jaten ez edaten, ez sexu-harremanik izaten. Egunsentian gosaltzen dute, eta eguzkia sartu ondoren elkartzen dira, lagunarte alaiari elkarrekin afaltzera. Baina egun osoan ezer ez, Koraneko hitz asegarriak eta Allahren arnasa suspargarria besterik. Gizakia ez baita ogiz bakarrik bizi. Ogiak berak arnasa behar du, oreka ura behar duen bezala.


Ramadana ez da beti urte-sasoi berean izaten. Musulmanek ilargiaren araberrako egutegia dute, ez eguzkiaren araberrakoa, guk bezala. Beraz, euren urteak ez dira denak berdinak –365 egunekoak, gureak bezala– eta, gure egutegiarekiko, euren jaiak aldatzeko dira, ibiltariak, ilargiaren antzera. Ramadanaren ere ibiltaria da, eta edozein urte-garaitan egokitu



joxe arregi

daiteke. Aurten, abuztuaren 1etik 30era. Jakina, eguna luzeago eta baraua luzeago. Egunak beroago eta baraua gogorrago.

Ez legoke gaizki, oporretako patxadaz baliatuz, edo jaietako zalapartatik zertxobait aldentuz, Azkoitiko meskitara hurbilduko bagina –Azpeitiak ere laster izango omen du berea–, kontuak esatera, egotera, arnastera. Ba al dakizu Azpeitian 700en bat badirela guztira, eta beste horrenbeste Azkoitian? (1.200 milioi inguru munduan, Lurreko bost biztanletik bat hortxe nonbait). Zu eta ni bezain azpeitiarrak dira, beraiek hala nahi badute. Ez dira “kanpotarrak”, nahiz eta gehienak magrebtarrak, senegaldarrak eta pakistandarrak izan. Denok izan ginen noiz edo noiz “kanpotar”, bertakotu ginen arte, beste batzuek hartu gintuztenari esker. Denok gara nonbaitetik etorriak, eta ez dakigu bihar nora jo beharko dugun. Denok gara bidazti, erromes, ilargia bezala. Ramadan on, musulman adiskideok!*



Seguru al zaude hori hola dala ?

Bai, garayek die hillekue jeiste etzatela. Ze inber deu oin?

Bidean



Esnatu zara, konparazio batera Carrion de los Condesen, eta bidea daukazu zain. Bospasei orduko joana, bospasei ordu pentsatzeko. Eta egiten duzu bidea, eta bideak egiten zaitu. Eta pasatzen zaitu jendeak, eta pasatzen duzu jendea, eta hitz egiten duzu batarekin eta bestearekin, bi hitz dakizkizun edozein hizkuntzatan, eta helmugara iritsi nahi duzu lehenbailehen. Zeozer jan, edan, atsedean hartu, giharreak lasaitu.

Eta bazkaldu duzu, Tourra dago telebistan, eta pentsatu duzu, horiek ere esnatuko zirela, konparazio batera, Saint-Paul-Trois-Chate-

aux-en, eta bidea daukatela zain. Bospasei orduko joana, bospasei ordu pentsatzeko. Eta egiten dute bidea, eta bideak egiten ditu. Eta bakarrik doaz, zu bezala, edo tropelaren babesean, eta batarekin eta bestearekin hiz egiten dute, bi hitz dakizkiten edozein hizkuntzatan, eta helmugara iritsi nahi dute lehenbailehen. Zeozer jan, edan, atsedean hartu, giharreak lasaitu.

Eta burua hurrengo egunera joan zaizu, eta gero Compostelara, han bukatuko delako bidea. Albariño freskoa izango duzu zain, *pulpo a feira*, han egongo da Done Jakue,

■■■■■■■■■■eñaut frantzesena■■■■■■■■■■

gaiteroren bati pieza on bat entzungo diozu igual. Baina laster dira saninazioak, nahi zenuke txupinazoan egon, Urduñatik Fandiño ikustera etorriko diren lagunak agurtu, Zokoa elkartekoak bakailao txapelketa irabazten ikusi, gaiteroekin batera *Carrascosa* jo, Sana-gustinen zerbeza bat hartu.

Eta orduan, zeure buruari galdetzen diozu ze ostia egiten duzun Gaztelako herri puta horretan, eta kontratzen zara ez Compostela eta ez kristorik, zure bideak beti Azpeitirantz doazela, eta azkar ibili behar duzula bezperan han izateko.*



UROLA Autoeskola

Bustinzuriko Errebala, 3 atzea
Tel. 943 81 26 66 • 20730 AZPEITIA
www.urolaautoeskola.com

Adr eta Cap kurtsoak
Gidabaimen guztiak



Gidabaimena euskaraz
ateratzeko aukera

ONDO PASAU
SANINAZIYUEK







▲ UKULUAN.

Nafarroatik, Mendigorriako Angel Makua ganadutegitik, ekarri zituzten zezenak hilaren 17an, 11:30ak aldera. Kamioian ekarri zituzten eta deskargatu ondoren zezen-plazako ukuluan sartu zituzten, jaialdia hasi bitartean.

Jauzi ikusgarriak

Errekortarien finalerdia eta jaialdia antolatzeko Zezenbeltzek egiten duen lana argazkitan jaso du

Uztarriak. 📷📍 Gaizka Otamendi eta Zezenbeltz 📷📍 Ainitze Agirrezabala



▲ **ERRONDA, TABERNAZ TABERNA.**

Zezen-plaza ez ote zen beteko "beldurra" zuten Zezenbeltzeko antolatzaileek. Izan ere, igande eguerdian tabernaz taberna joan ziren, saldu gabeko sarrerak eta bildutako dirua jasotzera, eta ia zoko sarreren erdia ere ez zela saldu jabetu ziren. Argazkian, Zezenbeltzeko kide fernando Arakistain eta Mikel Odriozola, Eguzkitza tabernan.

► **KONTATZEN.**

Behin taberna guztiak pasata, bazkal aurretik kontaketa egiten dute, zenbat sarrera saldu diren eta saltzeke zenbat geratu diren, alegia. Errekortarien jaialdia antolatzeko lanean hiru hilabete lehenago hasten dira Zezenbeltz Elkartekoak. Guztira, 20.000 euroko aurrekontua du jaialdiak. Argazkian, Zezenbeltzeko kideak kontaketa egiten.





▲ AINGERUAREN JAUZIA.

Errekortari 2011ko finalerdia ikusgarria izan zen; jaialdi biribila osatu zuten errektorien maila onak eta ikusleen erantzun beroak. Argazkian, Mikael Romero 'Mika' errektortaria aingeruaren jauzia egiten.

▶ ERANTZUN ONA.

Eguraldiak ez zuen lagundu, jaialdia baino ordubete lehenago sekulako zaparrada bota baitzuen. Zezen-plaza beteko zen zalantza zuten antolatzaileek, baina jaialdia minutu batzuek atzeratu behar izan zuten, izugarritzko iladak baitzeudenlehiatilan. Zezen-plazaren hiru laurdena bete zen. Zezenbeltz elkartetik "jendearen erantzun beroa" nabarmendu dute.



▲ LEIHATILAKO DIRUA KONTATZEN

Argazkian, Fernando Arakistain eta Jon Arellano zezen-plazako bulegoan, leihatilako dirua kontatzen.





▲ KOADRILAN.

Zezenbeltz Elkarteak kideak, zezen-plazan. 30 lagun dira guztira, haletako bat neska.



▲ ERREKORTARIAK LANERAKO PREST, PLAZARA SARTZEN.

Zezenaren aurrean egin beharreko jauzietan lagungarri zaizkielakoan, amuletoak edo kutunak eraman ohi dituzte errekortariak. David Ramirez *Peque*, 2009ko txapelduna, eskumuturreko kutunari musu ematen. Ezbeharrak ez zen izan. Errekortariak maila ona erakutsi zuten, eta zezenek ere lan ona egin zuten, bere anaiak baino motelxeagoa zen batek izan ezik.



▼ SARI BANAKETA.

Ruben Fernandez *Cuatio* sailkatu zen lehen postuan –behean, ezkerretik hasita aurreana–, eta errekorre onenaren saria Jonathan Estebanez 'Peta'-k irabazi zuen.

BENANTXIO IRURETA

mendizalea

“Mendiak eta mendiaren guztiak bete egiten nau”

“Obsesiorik gabe”, baina oraindik “zapaltzeko eta ikusteko paraje asko” dituela dio aizarnarrak.

 Ainitze Agirrezabala

Probatu bazuen, probatu, mendiak bizio bilakatu zaizkiola esan daiteke. Ingurukoei ere iturri horretatik edaten eman zalea da, gainera. “Semeari txikitatik egurra eman” ziola aitortzen du. “Urtebete zuela Anetora eraman nuen motxilan, eta 14 urterekin Everesteko treking-a egitera eraman nuen”. Orain aitona eginda, mendiekin duen miresmen horrekin kutsatu nahi ditu ilobak. “Zaharrena Izarraitz eta Erniora eraman dut bizkarrean; txikiak sei hilabete ditu eta udazkenean eramango dut Erniora”.

Bihar [uztailak 8] aterako zara Pakistanera. Zer egin asmoz?

Valtoroko treking-a egitera noa, nafar talde batekin. Hango zortzimilakoen inguruan ibiliko gara: Gashembrun I-II, Broad Peak... Horko erregea K2 da eta K2ko oinarrizko kanpamendura joango gara, duela 25 urte nafar haiek estatu mailan aurrenak izan baitziren K2ko gailurra zapaltzen.

Eta, bizar hori?

Nepalen eta Hego Ameriketako txaboletan lo egiten dugu eta dutatzeko aukera izaten dugu. Pa-



n inguruko



kistanen, ordea, mendira joan eta ez omen dago ezer ere, oso basatia da. Norbere garbitasuna zaintzeko aukerarik izango ez dugunez, horregatik utzi dut bizarra. Hartara, pakistandarren artean beste bat gehiago emango dut. Denek esaten didate zaharragoa ematen dudala. Horrek erremedio erraza du. Handik etorritokan segituan kenduko dut.

Txabolarik ezean, gauak kanpinean igaroko dituzue?

Horrek ere tranpa pixkat badu. Kristoren montajea dago gure inguruan. 10 kiloko motxila bana eramango dugu, baina gure trasteak eta jatekoa eramateko 40 pisulari daramazkigu. Egia esan, hara joan behar eta morroiekin edo neskameekin ibiltzea ez da nire estiloa. 8.000ko bi espedizio egin ditut, Yalunkanera eta Everestera. Yalunkan oso urruti dago, Nepalen barruan, eta bertara iristeko bideak oso zailak ziren. Gu joan ginen garaian oinez hasi eta oinarrizko kanpamendura ailegatzan 22 egun pasatu genituen. Noski, gaur egunean, dirua pagatuta, helikopteroz, oinarrizko kanpamenduan jartzen zaituzte, traste guztiekin. Niri estilo hori ez zait gustatzen. Nahiago dut oinez joan, bazterrak ikusi, hango herriak pasatu, umei karameluak eman, aitonak ganadu xaharrekin lanean ikusi, argazkiak atera... Mendia igotzearen parte polit bat da hori, bizipoza da.

Mendiak zeharkatu eta ton-torrrak zapaltzeko debozioa nondik datorkizu?

Aitarekin ehizera joaten nintzen, baina ez nintzen behin ere joan mendira. Gero etorri zitzaidan mendiko zera hori. Ni Zarautzen ibili nintzen eskola profesionalean, elektrizista ikasten, eta eskolako lagunak bitartez sortu zitzaidan mendiko zaletasun hori. Handik hasi nintzen. Gero Azpeitira etorri nintzen bizitzera, duela 40 urte, eta hemen Joxe Takolo eta neure andrea izandakoa ezagutu nituen. Pirinioetako aurreneko pausak haiekin eman nituen.

DATUAK

||| **Jaio.** 1953an. ||| **Herria.** Aizarna. ||| **Bizi tokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.** Elektrizista.

“Hara joan behar eta morroiekin ibiltzea ez da nire estiloa”

“Urtero nire buruari helburu bat jartzen diot, kanpora joatea”

Noiz geratu zitzaizkizun hemengo mendiak txiki?

Behin ere ez zaizkit hemengo mendiak txiki geratu. Nik hemengo mendiak asko maite ditut. Askotan entzun behar izan dut: ‘Zuei horiek txikitxo geratzen zaizkizue’. Ez, ez. Ni aurrean izarratzen askotan joan naiz. Erniora gutxiago. Azpeitiko martxa ere egin dut, Pagoetara ere joan nintzen. Hemen ere oso gustura ibiltzen naiz. Orain, egia esan behar da, Pirinioa 3 ordura dugu, gertu dago oso, eta izugarritzko aukerak ematen dizkigu, bai udan eta bai neguan, gauza zailak nahiz errazak egiteko, luzeak, motzak, eskalada mailan, elur mailan, trabesia... Kristoren aukera ona dago.

Urtea udari begira pasatzen al duzu? Ala, urtean zehar badituzu beste erronka batzuk?

Suerte handia daukat, oporrak neuk nahi ditudanean hartzen ditut, hilabete. Azkeneko urteetan gehienbat treking-ak egitera joaten naiz. Zortzimilakoetara ez naiz joaten, diru eta denbora gehiago eskatzen baitu. Urtero nire buruari helburu bat jartzen diot, alizientez bezala, kanpora joatea. 16. urtea dut segidan irteten dudala eta dena 19-20 bidaiak egin ditut. Egia esan, jende pilo bat aldatu dut, zaharra neu bakarrik ge-

►ratzen naizelako. Denak erretiratu dira. Ni, ordea, mendiak eta mendiaren inguruko horrek bete egiten nau. Ez da ahuntzak bezala mendian ibiltzea bakarrik. Baina han egiten diren harremanak eta giro sano hori, oso polita da. Ez dago dirurik hori ordaintzeko. Eta, gainontzean, urtean zehar, mendira. Niretzako ez dago denboraldi alturik eta bajurik. Nik urte guztiaren funtzionatzen dut. Astebururor. Askotan Pirinioetara joaten gara. Ostiral arratsaldean atera eta jairarte. Lo egiteko tokiak ere fitxatuta ditugu. Ijitoek bezala, zubi azpian, arbola azpian, eliza atarian... aire librean egiten dugu beti lo, bai neguan, bai udan. Larunbatean 10-12 orduko mendi buelta egiten dugu. Igandetan 6-7 orduko mendi buelta egin eta etxera garaiz etortzea gustatzen zaigu, jai arratsaldean lagunekin kalera atera behar delako. Niretzako oso garrantzitsua da hori. Azkeneko hiru urte eta erdian, gainera, ama egoitzan daukat eta hari bisita egiteko aprobetxatzen dut.

Nola gozaten da gehiago: prestatzen, ala mendia egiten sufritzen?

Nik egin ditudan tontorrik gogorrenetan, mendi handietan, alegia, kezka galanta izan dut nola jaitsi behar dudana pentsatuta. Barruan eramaten duzu kezka hori, etxekoekin akordatzeko zara, sufritu egiten duzu, eta igoi malko batzuk irteten zaizkizu. Mendia egitea ez da bukatzen gora ailegatutakoan, behera jaitsitakoan, orduan bukatzen da mendia. Orduan hasten zara gozaten, behera jaitsi eta lagunak besarkatzen. Mendian istripurik gehienak beherakoan gertatzen dira. Jendea erlaxatu egiten da, nekea pilatu, eta erreflexuak ere ez daukazu behar den bezala. Fisikoa oso garrantzitsua da, baina baita zuhur jokatu eta burua erabiltzea ere. Mendiari beti errespetua. Arriskua badago, kontuz ibili behar da eta jakin egin behar da atzera egiten. Ez dago zertan

pentsatu atzera egiten delako frakasatu bat zarela.

Zenbat diru kostatu daiteke espedizio bat?

Lana egin eta aurrezten ditudan diru txamar denak izaten dira horrik zehar ibiltzeko. Nik azkeneko urteetan gehiena trekking-ak egiten ditut. Iaz, Nepalgoa 3.000 euro kostatu zitzaidan, Pakistangoa beste horrenbeste. Tontorrek egitea ia beste gauza bat da. Zortzimilakoetan permisoak behar dira eta diru asko ordaindu behar da. Baimena, agiri bat, paper bat. Zazpi laguneko talde batentzako balio du baimenak, eta taldekide bakoitzak 6.000 euro inguru ordaindu behar du. Aparte hegaldia, bidaia eta dena. Nik diru dena mendian gastatzen dut. Askok esaten didate kaskatuta nagoela, baina hori esanda ez

naiz haserretzen. Arrazoi igoi izango dute, baina mendiak eta mendiaren inguru guztiak bete egiten nau.

Inoiz eduki al duzu aukerarik horretatik bizitzeko?

Niri makina batek esaten didate, hasi adi moteil, gidari bezala, hik bizimodua aterako hukek-eta. Nepalera jende pilo batekin joan naiz, Pirinioetara ere bai, gazte askorekin. Bideak eta gauzak jende askori erakutsi dizkiet hemen, baina lagun bezala. Azken aldian, gainera, pare bat-hiru bat bikote ezkonberri ere etorri izan zaizkit, Nepalera trekking-egitera joateko asmoa zutela eta. Bidaia zenbat kostatu zitzairen, zer ikusi zezaketen, non lo egin edo nondik nora ibili zitezkeen aholkatu nien. Baina, gidarena ez dut sekula planteatu, n i baino



1. Beñat Arrue eta Benantxio Iureta, Pumori atzean dutela. 2. Istripua eta gero, Arrueren argazki-kamera berreskuratzea lortu zuten, eta Iurretak besoetan duen Nepalgo neska hau Arrueren kameran agertu zen. Gerora, Nepal, Arrueren argazkiko neskatoa bilatzea lortu zuten. 3. Picos de Europa, Naranjo de Bulnes gailurrean, Xabier Osinalde eta Arantxa Iturberekin.

askoz hobeia izan behar da gauza horietarako. Alpetako giak fisikoki oso eskalatzailerik gogorak dira. Noski, kobratu ere halaxe egiten dute. Nahi duzun tokira eramaten zaituzte. Alpetako Cerbino mendia mitikoa da, oso polita, baina arriskutsua. Hura igotzen ausartzen ez bazara, giak kontratatzen duzu. Bezeroari soka bat lotzen diote eta baserritarrek txahala bezala eramaten dute behetik gora. Toki txarretan heldu eta arrastaka eramaten zaituzte. Orain dela hogeitaka urte, 100.000 pta pagatu behar izaten zuen bezero bakoitzak gida, Cerbinon. Nik horrela igotzea baino nahiago dut batere ez igotzea.

Gaur egun zein dituzu mendilagunak?

Lehengoa lagunak soziedadean daude, tripa handiarekin, eta gazteekin ibiltzen naiz orain. Jose Luix Eizagirrearekin asko ibiltzen naiz, gehiena. Olatz Larrañaga ere ibiltzen da gurekin, Amane Arrue, Mikel Arregi... horiek oraingo lagunak.

Pasaban eta Oiarzabalen afera, erreskatea medio; 14 zortzimilakoak egiten lehengo emakumea izateko Pasabanekin Oh Eun Sun korearrarekin izandako lehia. Zortzimilakoak igotzeko gose hori... Mendizaletasunarentzako ona al da hori?

Historiatarra izan da hori (Pasaban eta Juanitoren artekoa). Lehengoa izatea beti da polita. Beti esango da lehendabizi Everest Hillaryk igotzea. Eta lehengo 14 zortzimilakoak Mesnerekin igotzea, eta orain lehenbiziko emakumea, Edurne Pasaban esan beharko dugu. Baina, gaur egun sartu garen kompetizio maila hori niri ez zait batere gustatzen. Esponsor eta diruaren alde, mendia futbolaren pare jarri da. Zentzu horretan zatarrak iruditzen zait. Ez dit inbidiarik ematen. Ni, behintzat, poltsikotik osatzen banaiz joango naiz, eta ez daukadanean ez naiz joango. Baina, neura kasa, etorritakoan lagune-

kin afari bat egin, diaporamak era-
kutsi... nahiago dut horrela ibili.

Miresmen berezirik sortzen dizun mendizalerik ba al duzu?

Takolo, behintzat bat. Umila eta jatorra, *natuala*. Berezia zen, multilzaharra zen horrekin. Bihotz onekoa zen eta oso mendizalea. Bere kasa, bakarrik, gehitxo ibiltzen zen. Pirinioetara ia beti bakarrik joaten zen. Oso zaila zen berarekin planak egitea. Bakartia zen oso. Bakarrik ibiltzeak neuri ez dit graziarik egiten. Lagunarekin beti hobeto.

Esperientziarik onena?

Onak, bat baino gehiago ere bai. Duela 23 urte, 1988an, Azpeitian espedizio bat egon zen Yalunkanera (8.500m). Estatu mailan gailur hura igotzen aurrenak izan ginen; harrezkero, Oiartzabal eta Pasaban egon dira igotzeko asmotan, baina inork ez du igotzerik lortu. Modestiak aparte, neuk bakarrik lortu nuen gailurra egitea. Herri-mailan kristoren omenaldia egin ziguten. Hiru hilabete pasatu nituen. Oso polita izan zen. Oroitzapen oso politak ditut Yalunkanekoak. 25 urte betetzen direnean berriro bueltatzeko asmoa dut; gailurrera ez, baina oinarritzko kanpamendura joan eta Yalunkan ikusi, 'hemen natxeok oraindik' esateko.

Mendiak eman dizun gauzarik onena?

Horrela kolpera esanda, lagunak.

Eta, igotzeko pendiente duzun mendi bat?

Zerrenda luzea dut. Parajeak ikusteko oraindik asko dauzkat, baina obsesiorik ez daukat. Oraindik ere esaten didate: 'zer, zortzimilakoren batera?'. Zortzimilakoa egiteko bi hilabete behar ditut; tailerretik baimena lortuko nuke, baina dirua asko behar da, 12.000 euro, behintzat, behar dira. Eta 12.000 euro gordetzen, urte bat edo bi sakrifikatu egin beharko nituzke, eta nik nahiago dut urtero gauza txiki bat egin, ailegatzen naizen bidaia bat, baina urtero egitea.*



Xabier Osinalde.

XABIER OSINALDE mendizalea

“Mendiaz dakidana berak irakatsi dit”

“Mendia Benantxiorekin ezagutu dut. Aurrenekoz Aneton izan zen, 1998an. Txandala besterik ez neraman, eta gora gindoazela, erdi bidean, ia hotzak akabatu ninduen. Termotik kafea eman zidan, beroan sartzeko, baina nirekin behera jaitsi zen. Beste biek ton-torrera jarraitu zuten. Mendiaz dakidan dena Benantxiok irakatsi dit. Pazientzia du, eta todoterrenoa da. Denekin ondo moldatzen da, zaharrekin, gazteekin... Sasoi beldurtzekoa du. Lagunarteko pertsona da, eta mahaiaren bueltako giro hori ere asko gustatzen zaio. Pertsona ederra da.

ARANTXA ITURBE mendizalea

“Mendia asko bizi du, dena da berarentzat”

“Ahizparen bitartez ezagutu nuen. Treking-a egiteko grina berak sartu zidan. Gero, Mustagata-ko espediziora (7.500 m) beraiekin joan nahi nuen esan zidan. Nik beti esango dut Benantxiarekin gerozko gaitzak gaitzak izango dituzten die. Lehen ibiltzen ginen taldetxoak udaero egiten dugu irteeraren bat Pirinioetara. Pakistanera joaterako esan zigan, prestatzeko, bueltan norabait joan behar dugula eta”.



Arantxa Iturbe.



Joxe Luix Eizagirre.

JOXE LUIX EIZAGIRRE mendizalea

“Kristoren laguna da, maisua da mendian”

“12 urte dira elkarrekin hasi gine-la. Harrezkero asko ibili gara elkarrekin. Beti hor zehar, lurrean, egiten dugu lo, 'hotel milestrellas'-en. Pakistanera berarekin nintzen joatekoa, baina Boliviara noa azkenean. Nepalen izan ginen, Puta Yun Chulin, konjelazioak jasan nituen eta esan daiteke berari eskerrak nagoela hemen. Oso ondo portatu zen. Kristoren laguna da, maisua da mendian. Benanen bidez mendian lagun oso onak egin ditut. Gauza asko kontatzen diogu elkarri. Jendeak asko estimatzen du. Akats bezala esango nuke sasoi handiegia duela”.*

Pumori, liluratzen duen mendia

||| Mendian egun zorionsu asko igarotakoa bada ere, bestelako “une garratzak” bizitzea ere egokitu zaio Benantxiok Irurretari. Nolanahi ere, bizipen batzuk eta besteak balantzan jarri, eta “onak gehiago dira txarrak baino”.

Urriaren 17an hamar urte beteko dira Pumori mendiko (7.161 metro, Nepal) gailurra egin nahian zebiltzala, Beñat Arrue azpeitiarra eta Iñaki Aiertza aizarnazabaldarra –beste hiru nafarrekin– hil zirela. “Mendi oso politeria joan ginen, baina ezbehar gogorra eduki genuen eta bost lagun han geratu ziren betirako. Emaztearengandik banatzea eta gero, hori izan da bizitzan gertatu zaidan bigarren golpea. Hamar urte dira gertatu zela, baina oraindik ere

horrekin bizi naiz. Ahaztu egin behar dudala behin baino gehiagotan esaten didate, baina nik ez dut ahaztu nahi, Pumoriko istripua nire bizitzako parte da”.

Istripua gertatu zenetik, Pumorrekin “lotura berezia” duela dio. “Ez daukat ezer mendi horren kontra, kristoren polita da, eta oso gustura joaten naiz. Istripuaren ondoren, oroigarri bezala denen izenekin harri bat dugu jarrita, oinarritzko kanpamenduan. Harrezkero, 7 bat aldiz joan naiz, iaz azkena. Beñat Arrueren gurasoekin askotan joan izan naiz, baita Iñaki Aiertzaren neskalagunarekin ere. Loratxo batzuk jartzen dizkiegu, Pumoriren magalean”.*

Gutxi asko da

Kilometroen festa antolatzeke guztien beharra dago. Hondar alea jarri nahi izatera, egin zaitez metro baten jabe, edo izan zaitez bolondres. ✍️📞 Eneritz Albizu

Jaiotzen garenetik zahartzaroraino bide luzea, edo ez hain luzea egin ohi dugu. Ikastoletan hazi eta hezten laguntzen digute eta geure kabuz zein inguruko laguntzaz aldaketa ugari izaten dugu gure bizitzan.

Euskarak ere aldaketa ugari jasan ditu mendeetan. Egoera zailak menderatu eta moldatu behar izan du. Halere, badirudi ez gairela pertsonak eta euskara etengabe aldatzen ari garen bakarrak: komunikatzeko erak eta tresnak eboluzionatzen ari dira, eta gero eta errazagoa da horietara gerturatzea.

Kilometroak ezagutzeko bidea

Azpeitiko Ikasberri Ikastolak leiho berriak zabaldu nahi izan dizkie kilometroei eta hauetako zati izan nahi duten pertsona guztiei, datoren urriak 2an Azpeitian ospatuko den Ikastolen aldeko jai hau ezagutarazteko eta bultzatzeko modu berritzaile batekin.

Klikmetroetako arduradunek badakite agian Internet bidez ez dutela lortuko mundu guztira iristea, baina bai beste modu batera iritsiko ez liratekeen txokoetara. "Asmoa ez da beste komunikabideak ordezkatzea, guztiak uztartzea baizik: gero eta tresna gehiago erabiliz, gero eta jende gehiagorengana iristea lortzen da".

Zer dira Klikmetroak?

Kilometroen lehen pausoetan, duela 35 urte, enpresa, erakunde zein pertsonaia ospe-

Izan zaitez zu ere bolondres

!!!Urrira bitartean metroak eginez ikastolari laguntzen "buru-belarri" saiatuko diren arren, "egunean bertan ere zertan lagundua" egongo dela adierazi dute lan-poltsa osatzeko ardura duen lantaldeak. "Lan poltsa jadanik zabalik dago eta 700 pertsona inguru bildu diren arren, 1500 pertsonentzat lana egongo dela estimatzen da. Bederatzi lan-talde ezberdin egongo dira mota guztietako eginkizunekin: trafikoa, zirkuitua, garbiketa, komunikazioa, erropen salmenta eta beste hainbat lanetan lagundu beharko da".

Aurtengo kilometroek "elkarlanaren bitartez festa polit bat osatzea" dutela helburu gaineratu dute. "Hala, herriko talde nahiz eragileak eta norbanakoak kilometroetako parte izatera animatu nahi ditugu". Interesatuak izena emateko bide desberdinak dituzte: kilometroetako web orrian, zenbait denda eta elkarteetan izena emanez, kliklaguntzaile@gmail.com helbidean, ikastolara gutuna bidalita edo 688 640 904 deituta. ✖



Kilometro egunerako lan-poltsa osatzeaz arduratzen ari den lan-taldea.



Guraso elkarteko kide Amaia Altuna eta Josu Azpillaga, Azpeitiko Ikastola Ikasberriko atarian.

tsuek diru kopuru bat ematen zieten kilometroen antolatzaileei, tokiko ikastolari lagunduz. Aurten, Azpeitiko Ikasberri Ikastolak aurrera atera duen ideia ildo beretik doa, hain zuzen ere; kilometroen hasierako filosofia oroitu nahi izan da, hori bai, gaur egungo garaietara egokituz. Klikmetroak deituriko ekimena <http://klikmetroak.com/> web orrian dago guztion eskura.

Xedea garai batean babesten ziren metroak, gaur egun birtualki babestea da. Klik egiten duzun momentutik metro baten jabe egiten zara eta zirkuituari buelta ematen laguntzen duzu metroz metro. Parte hartzaile desberdin bakoitzagatik diru kopuru zehatz bat jarriko dute babesleek, elkarlanean ikastolari laguntzea ahalbidetuz. Hau honela, ez dago esan beharrik behar-beharrezkoa dela bertakoon zein kanpokoen laguntza, pertsona bakoitzak klik simple bat eginez asko lagundu baitezake.

Nola jaio zen ideia?

Komunikazio taldearen ekimen desberdin

bat sortzeko gogoak ahalbidetu zuen klikmetroaren jaiotza. Josu Azpillaga arduradunaren esanetan, "proiektu tinko bat sortu aurretik, hasierako ideia xumea ekarpenez josi behar izan zuten. Denbora, pazientzia eta elkarlana. Ideia ez da goizetik gauera sortzen".

Jendeak Klikmetroekiko "nahiko harrera beroa" izan duela adierazi du Azpillagak: "jada 1250 metro inguru egin dira. Nabarmena da bazter guztietako jendearen parte hartzea: azpeitiarrak, euskaldunak, kataluniarrak eta baita Diasporako jendea ere".

Babesleak ere "oso ondo ari direla erantzuten" gaineratu du: "eurek ere gustuko dute ideia berritzaile hau. Antolatzaileok harrituta eta pozik gaude erakunde zein enpresa ezberdinen esku hartzearekin. Momentuz enpresak metro egileen aurpegi zein izenak baino gehiago dira, eta hori ona da".

Nora goaz?

Helburua zirkuituari buelta bat ematea da, eta gehiago ere bai, ahal izanez gero. "Zirkuituak 5930 metro ditu eta honenbestez,

5930 pertsonen laguntza behar da hau osatzeko". Antolatzaileek "itxaropentsu" begiratzten diote etorkizunari, eta udan klikmetroa gelditu samar badago ere, irailean, ikasturte berriarekin "bultzada handiagoa jasotzea espero" dute.

Honetaz gain, ekimen honek badu beste asmorik: "Euskararen presentzia telebista, irrati zein egunkarrietan ez ezik, Internet eta sare sozialetan zabaltzea. Argi dugu gaur egun interneten ez bazaude ez zarela ezer, eta euskarari ere arlo honetara gerturatzeko garaia iritsi zaio".

Zeuren izan zaitez metro baten jabe

Aurtengo Kilometroek sutsuki defendatzen dute elkarlana, eta ez dago urrirarte zain egon beharrik Azpeitiko Ikasberri Ikastolari eskua luzatu ahal izateko. Zeuk ere egin dezakezu metro bat Twitter eta Facebook sare sozialak erabiliz edo Klikmetroak webgunearen bidez. Animatu zaitezte, "klik batekin indartuz euskal izaera".*



Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:

- Logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
- Seinaleztapena

- Komunikazioa:

- Prentsa bulego lanak
- Komunikazio kanpainak
- Mailing-ak...

haritz etxeberria 'ministro' |||



||| josu oartzabal 'xenpelar' |||

Animaliak

Ministro. Aurten sanferminetako zezenketa ikusten izan nauk! **Xenpelar.** Ez iezadak esan zezenak torturatzearen alde hagoela, eta ez zidak balio esatea ez huela hondarretara begiratzen.

Ministro. Ez, ez nauk txorakeria horietan eroriko. Egia duk zezenketa ez dudala gustuko, baina hango alkohol parrastada, oihu eta jaki pusken artean imaginatu nian Erroman kristauak lehoietara nola botatzen zitiztean eta jendeak nola disfrutatzen zuen espektakulu basatiarekin.

Xenpelar. Beraz, joko, jolas edo zuen ikuski-zunerako zezen bat torturatu eta hiltzea ondo iruditzen zaik? Eta ekonomikoki babesten duk.

Ministro. Bai, ekonomikoki babestu diat, granjan egoten diren oilaskoak jaten ditiat, zoologikoak ikusten izan nauk, Donostiako akuariunean ere egon nauk eta Bangladeshen egindako arropak janzen ditiat.

Xenpelar. Zer esan nahi duk horrekin, kontradikzio asko ditugulako beste bat edukitzeak ez duela inporta?

Ministro. Ez, baina Oikiako oilaskoen defentsan inoiz ez duk egin manifarik, eta uste diat oso xentxibleak garela ikusten dugun horrekin bakarrik eta, nahiz eta jakin Oikian oilaskoak torturatzen direla, ez dugunez ikusten, ez duk sentitzen; polizia torturatu eta jipoitzeko dagoela, *Youtube*-ko irudiak ikusita koan ohartzen duk jendea.

Xenpelar. Hala eta guztiz, basakeria bat duk zezenketa, ezin diat sinetsi jendeak nola gozatzen duen zezenaren odol jarioa ikusita. Gainera, askotan horiek dituk giza eskubideez eta tolerantziaz gehien dakitenak.

Ministro. Bai, eta nik ezagutzen ditiat ani-

||| **MINISTRO.** “Oikiako oilaskoen defentsan inoiz ez duk egin manifarik”

||| **XENPELAR.** “Gizarte etikoa egiteko animaliekiko errespetua erakutsi beharra diagu”

malistak, gero ‘beraien’ animaliatxoak inork baino okerrago tratatzen dituztenak, etxezuloan edo kaiolan sartuta edukitzen dituztenak, izurdeek pena eman, eta atuna jaten dutenak...

Artzainaren jokaera

Xenpelar. Gizarte etikoa egin nahi badiagu animalienaganako errespetua erakutsi beharra diagu.

Ministro. Artzainak arriskuan ikusten duen ardia salbatzeko bere bizia emango dik, baina lagunak bazkaltzera etortzean daukan arkumerik onena hilko dik haiekin batera jateko.✘



ordua:
12:00-15:00
17:00-01:00

egunak:
uztailak
24-25-30-31
abuztuak 1

prezioa:
2 boleto
euro batean

tonbela

zozketa azken egunean:

- Netbook bat
- 4 laguntzako afaria
- 2 laguntzako asteburua

opariak:

- Bi laguntzako 30 afaririk gero
- Talasoterapiako zirkuitua
- Ite mozketak
- MP4ak, argazki kamerak...
- ...

lekua:
erdi kalean



AMAIA TABERNA

LARATZ kafetegia

AÑOTA Sagardotegia • Sidreria



GAROA kafetegia

BAR ORBEGOZO ERRETEGIA

Mikel Uría Jatetxea

Baigera 1 Adibidea Urria Higer del jabetza

Baigera 2 Adibidea Urria Higer del jabetza

ONDARBIDE

L3 LAU-BIDE

Ongi Etzari Jabetza



Auntxa Erretegia



EREGI EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA



b5st



MENDIZABAL ERRETEGIA



EGUZKITZA KAFETEGIA



MOTX

Talasoterapia Zelai

ERREKA taberna

anare

URTZI taberna

Garai

KIMETZ

ELNEK

Zuha

nekane janari denda



PUB NEGUDA



Malats



KIROLDEGIKO TABERNA



HITZ GEZIDUNAK

	Antolatu		Eskain		Zerri arra		Adarkatzea		Anarkistak
	Betekada		*		Abian jarri		Ez eme		
	Amaierak								
Zurginak		Junta-gailua			Idi, hitz elkarketan		Kontso, bikoitza		
Erakusketa lekua		Berriz			Leku		Oxigenoa		
Intsektu mota			Jaurti				Kanpo, landa		
Ohe			Euskal alderdi ohi				Errusiako mendialdea		
							Urtaro beroa		
							Mutilei deitzeko		
Herri hizkeran, zer		Jardun				Karta joko			
Martiri		Kontso, bustia				Tona			
					Ez on				Potasioa
					Bokala				
Bizkaieraz, katea						Burdinolak			

Egilea: Luma

* Azpeitiko Ikastola

HIZKI ZOPA

lazko San Miguel liga jokatu zuten euskal traineruen izenak bilatu norabide guztietan.



A	R	E	I	S	B	E	R	L	D	I	O
Z	A	T	M	A	A	H	O	D	E	J	E
J	I	U	R	N	B	I	G	E	I	U	H
O	A	X	E	J	R	I	A	N	S	O	S
L	M	O	T	O	I	T	A	P	N	K	E
R	U	E	L	A	P	X	I	D	I	A	T
E	Z	G	A	N	O	I	A	O	R	L	O
G	U	K	E	H	I	R	R	A	I	U	K
G	A	M	A	O	R	D	E	P	N	A	S
E	S	A	Z	I	L	A	J	Z	T	D	O
B	I	R	B	U	K	I	E	T	O	I	P
T	A	I	D	R	I	U	H	A	J	U	I
Z	A	R	A	U	T	Z	E	K	R	E	D
O	M	U	G	N	I	L	A	R	U	N	I

Buruko mina

Jakeka izenez buruko min berezia adieratzen dugu, eta askotan goragalea eta jateko gogo eza izaten ditu berarekin. Gehienetan pertsona gazteek izaten dute; horregatik, asko edo gutxi, baina lan eta familiako arazoek eta kezkek zerikusia dutela pentsatzen dugu. Askotan, ikusmen arazoekin erlazionatzen da, eta zuzeneko erlazioa du estuasunekin, nekearekin, zaratekin eta zenbait elikagairekin –pastelak, gazta, txokolatea– ere.

Gerta daiteke ikusmen bikoitza, mantxak edo kolore ezberdinak ikustea eta dardarak edo hitz egiteko zailtasunak izatea ere. Ondo etortzen da isolatzea, lasaigarriak eta parasetamol edo aspirina bezalako analgesikoak hartzea. Batzuetan ona izaten da ospitalera joatea, azterketa egoki bat egiteko. Gaitz familiarra da, eta biznleriaren %5ak jasaten duela jakiteak ez dela arraroa adierazten du.

Gehienetan, hartzaroen azaltzen da adinean aurrera egin ahala, orduan eta agerraldi gutxiago izaten da, eta haurdunaldian ia batere ez. Agerraldi horiek sarriago agertzen dira perfekzionisten artean. Hasieran, umore txarra, argi izpien distira eta eskue-tako sentimen arazoak azaldu daitezke. Atsedena hartzea eta lo egitea dira erremedio-rik onenak ordu gutxitan sendatze-ko.*



||||||| **Julian bereziartua** |||||

MIREIA AGIRRE-AINHOA ZABALA begiraleak



1. Umeek gustukoan duten ekintza zein da?

Altxorarren bila, igerilekura irteera eta ibilaldiak.

2. Begiraleentzako ekintzarik onena?

Ekintza aktibo eta partehartzaileak.

3. Umerik 'despistatu'

zaizue inoiz?

Ettxera joateko umeak kontaktzen hasi eta beti dago norbait artean uretan.

4. Begirale izatearen alderdirik onena?

Norbere barruko umeak irteten duela.

5. Eta txarrena?

Ardura handiko lana da.

6. Umerik 'okerrenak'?
Gainetik kendu ezin direnak.

7. Neskak, mutilak...

Rolak oso markatuta dituzte. Jolaserako orduan ere antzematen da hori.*

📧 Ainitze Agirrezabala

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

lentzeria mertzeria

jose artetxe, 16

nabar

IRENE ALTUNA
LORADENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Ekain
AL BAITARI KLINIKA

Larrialdiak:
943.15.16.40

lora-etxea . . .

Kimubat

ASTE BUKAERAN IREKIA

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

|| ELKARRIZKETA DIGITALA || Egurra ta Kitto

“okerrena Abadiñoako gaztetxean jo dugu; inguru hartatik ez digute gehiago deitu”

|| Egurra ta Kitto musika taldeak bigarren diskoa plazaratu du. 2010eko *Argituko du*-ren ondoren, labetik atera berri-berria da *Lurrikara*.

Zein da kontzertu bat eman duzuen tokirik xebleena?

Egia esan, ez dugu oso leku xebleetan jo, baina pare bat aipatzearen, Gasteizko Errota auzokoa eta Mutiloakoa aipatuko genituzke. Gasteizen Zelai batean zegoen kamioi baten gainean jo genuen, aurrean banku bat, koska bat eta jendea nahiko urrun zegoela. Mutiloan, aldiz, tokia baino egoera izan zen xeblea. Kupelakoekin batera jo genuen herriko plazan. Beraien ekipoa bakarrik zegoen eta anpliak aurre-aurrean jarri eta nola edo hala moldatu behar izan genuen. Kupelakoei goraintziak!

Zein izan da kontzerturik onena, txarrena, jendetsuena, eta jende gutxienean zegoena

eta okerrena eta ondoena jo duzuen?

Kontzerturik onena Beasaingo festetan (aupá goierri la ostia); txarrena Andoaingo festetan (hoi dek resakie geneukena); jendetsuena Tolosako elkartasun egunean, Ferialean, (1000 sarrera saldu zien); jende gutxienean Ordiziko gaztetxean (eskerrak beste taldetakuek asko zien); gaizkienean



Abadiñoako gaztetxean, gure hirugarren kontzertuan (gehiyo etziguek otsein inguru hartatik) eta ondoena jo duguna Bilboko aste nagusian (aber aurtene hain ondo jotze deun).

Nolatan atera duzue reggae-toi kantu bat?

Eskoriatzako Unibertsitateko Txomin Txapel egunean jo behar genuen, eta aurreko entseguan, indioarena egiten hasi eta Txomin Txapelentzako kantua atera genuen. Azkenean, kantu hori ez genuen jo, norbaitek kaja elektrikoa apurtu eta kontzertua ezin izan genuelako bukatu. Gero, letra aldatu eta CDan sartu dugu entsegu batean asmatutako kantu txorra hau. (Esne Beltza-ren *Eskuekin* kantu honen *kopiadie* dek).

Non eros dezaket zuen CDA?

Orkatz eta Txarrantxa tabernetan, eta kontzertuetan 5eurotan. Eta doan deskargatzeko: www.myspace.com/egurratakitto.✘

|| EFEMERIDEAK ||

1707

Animalia arriskutsu asko.

Animalia arriskutsu asko zegoen –otsoa, basakatua– bertako ganaduarentzat eta biztanleentzat, eta bizirik edo hilda animalia horietako bat herriratzen zuena ehun errealekin saritzea erabaki zuten.

1781

Txerriak hazteko lurra

behar. Lurrik ez zutenei txerriak hazteari utzi beharko ziotela adieraztea erabaki zuten.

1831

Europar izurritea. Herriko etheen arteko karkabak garbitzea derrigorrezkoa ikusi zuten, gaixotasunak sor ez zitezen.

✎ **Iturria:** *Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar* liburua.

|| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.✘

www.uztarria.com
azpeitiko ataiye

|| eguneko albisteak || irakurleen erantzunak || eguneko argazkia || bideoak || blogak || inkesta || agenda || bitxikeriak || 'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... || uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai || eguneko efemerideak || gida komertziala...

|| sartu sarean, eta hartu parte || egunero **7.000** orrialderen bisita



Musua bekatu

Luminor eta Soreasu zinemetan filmak emateaz arduratu da urte askoan. Musuak eta eszena 'lizunak' moztuarazi egiten zizkioten. 📌📍 Ainitze Agirrezabala



Bernardo Etxeberria, bere etxeko terrazan.

Aitarekin batera tailerrean 14 urterako hasi zen, II. Mundu Gerra bete-betean zela. "Lanean hasi eta hurrengo egunean hil zen aita, istripuan -hasi da kontutan Bernardo Etxeberria-. Aita hilda, beharko lanari heldu, dirua etxera ekartzeko. Orduan hasi nintzen Luminor zineman -gero Zelaitxo egon zen lekuan- lanean, 1942an". Pelikulak emateaz urte askoan arduratu izan da, Luminorren aurrena, Soreasun gero.

Kanpotik zetozen saltzaileek ziotenez Luminor "Espainiako zine-aretorik onena" zen. "Pabiloi handia zen, euri egunetan aterkiarekin egon beharra zegoen eta 300 lagun sartzen ziren, tente etabar. Jendea zigarroa erretzen, sekulako kea izaten zen aretoan. Pabiloia ez zegoen kondizio onean, eta guardia zibilei debalde sartzen uzten genien, parte emango zuten beldur baikin. 3 pta balio zuen sarrerak. Ikatzarekin funtzionatzen zuten makina handiak genituen pelikulak botatzeko. Tarteka pelikulak su hartzen zuen eta hankapean nola edo ahala itzaltzen genuen, baina irudia belztuta ikusten zen gero".

Garai hartan, zarauztar batek kudeatzen zuen zinea, baina hark negozioarekin ez jarraitzea erabaki zuen 1946an eta, beraz, urte hartan bukatu zuen Etxeberriak Luminorreko lana. "Zinea itxita Azpeitiko herria ezer gabe geratu zen. Gabezia haren aurrean, Accion Catolica gaztedi taldea Otamendi erlojudandan hasi zen elkartzten, eta bilera haietan Luminor zinema hartzea erabaki zuten. Pabiloiaren jabearekin, ordea, tira-birak izan zituzten, eta azkenean, Soreasuko parrokiaren

Pasadizo ugari

||| Pelikula bota aurretik, Luis Beristain bake-epaileak ikusi egiten zuen, eta Etxeberriari helarazi zer zentsuratu behar zuen. "Adorazioko presidentea zen Beristain, eta egun batean pelikula ikusterik ez zuela eta niri eskatu zidan zentsuratzeko. *El cisne negro* zen filma, piratei buruzkoa; ezer berezirik ez zela azalduko pentsatu nuen, eta pelikula ikusi beharrean Xoxotera joan nintzen". Arratsalde hartan pelikula aurrez ikusi gabe eman zuten. "Hurrengo egunean erretorea etorri zitzaidan, zer pelikula bota nuen, kontu eske, herriko neska zahar denak kexatu zirela-eta. Filmean gizonezko bat eta emakumezko bat agertzen ziren ohean, baina eszena hura zegoenik ere ez nintzela konturatu adierazi nion erretoreari".

Beste behin, greba orokorra zen batean, herrian dena itxita zegoela adierazi du Etxeberriak. "Egun hartan, ordea, zine-foruma tokatzen zen, eta greba eguna izanagatik, plazan bildutako langileek pelikula ematea erabaki zuten". Ekintza hark, ordea, bere ondorena izan zuen: "guardia zibila etorri zitzaidan eta kuartelera eraman ninduen. Greba eguna izanda pelikula hura nolatan bota nuen esan zidan. Izan ere, langileria buruzkoa zen filma. Autoritatearen kontra jokatu nuela eta minduta zegoela bota zidan. Nik herriaren erabakia bete besterik ez nuela egin erantzun nion. Errietaekin libratu nintzen".*

atzeko lurretan zinea eraikitzea erabaki zen". Zinea egin bitartean, 3-4 urtean, Soreasuko elizako areto txiki batean botatzen genituen pelikulak. 1952ko uztailaren 25ean inauguratu zen Soreasuko zinema. 1.300.000 pe-zeta kosta zen. Elegantea zen. Makina modernoagoak genituen. 800-900 lagunentzako lekua zuen; pelikula ona ematen genuenean, butakan sartzen zirenez gain pasilloan silak jartzen genituen eta 1.100 bat lagun kabitzen ziren. Izan ere, orduan etxeetan ez zen telebistarik; irratia bazen, konforme".

Musuak eta 'lizunkeriak', moztuta

Garai hartan, dena zen bekatua, dena zegoen debekatuta. "Pelikula bakoitza jendaurrean bota aurretik Luis Beristain bake-epaileak ikusten zuen, eta txirrina jotzen zuen, irudia non moztu behar nuen jakiteko. Musu denak moztu arazten zizkidan, baita pixkat arrimatzten baziren ere. Eta 'lizunkeria' asko bazuen, filma eman ere ez. Filmak Bilbotik ekartzen genituen, Metro Goldwyn Mayer eta Univer-saletik, eta pelikulak bueltan bidaltzerakoan berriro pegatzen genituen moztutako bi muturrak. Gerrako filmak izaten ziren asko: *Eran cinco hermanos*, *Los siete mandamientos...* *Siete novias para siete hermanos* filmarekin aretoa leporaino bete zen".

Zinea botatzen mutil kokor askori erakutsi ziela ere adierazi du: "Duela gutxi hil den Joxin Unanueri neronek erakutsi nion. Bestela, lotuta geratzen nintzen, kalera irten ezin, eta hartara libreago nengo. Izan ere, arotza nintzen eta tailerrean 10 ordu sartuta joaten nintzen ni zinera. Gogoan dut igandero emaztea bi alabekin joaten zitzaidala zinema-ra bila. Orain, Soreasuko zinema-areto berria estreinatuta, huraxe zapaltzeko gogoz nago".*



Luba
aholkularitza

Aholkularitza:
Finantza
Laborala
kontablek

Gestori lanak

Finanzen administrazioa

Gestio Inmobiliarioa

Tlf.: 943 157 525 Faxa: 943 157 275
Enparan kalea, 43 • luba.ass@euzkoanet.net



KIRURI

J A T E T X E A

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62



Koh Tao

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)



arte eta diseinu ikastegia

- Dibujo eta eskulanak** (haurrak) 17:30/19:00
- Pintura** 17:30/19:00
- Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

---ren ??an izango dute hitzordua, ??tik ??ra, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzua	

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70	943 08 06 88
-----	----------	--------------

FARMAZIAK (ABUZTUA)

EGUNEZ

1-3-5	2-8-10-13-14-15-17-19-23-25-27-28-30-31	4-6-7-9-11-12	16-18-20-21-22-24-26-29
Aranburu (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).
943 811 350	943 811 274	943 815 974	943 080 258

GAUEZ

8-9-10-11-12-13-14-22-23-24-25-26-27-28-29-30-31	1-6-7-18-19	2-3	4-5-15-16-17-20-21
Alberdi (Azpeitia).	Gisasola (Azkoitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).
943 815 974	943 851 235	943 852 989	943 850 660

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 09:00-13:30 || Larunbata: 09:00-13:00 UDALTZAINGOA || Egun osoz irekita egoten da ANBULATEGIA || Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA || Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 10:00-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 ZAPO TXOKO || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



▲ ORDU ETA ERDI DOAN.

Soreasuko lur-azpiko parking-ean autoa lehenengo ordu eta erdian aparkatzea debalde da. Bestalde, hilabeteko (50 euro BEZ barne) eta urteko bonoak (500 euro BEZ barne) ere erosi daitezke.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

LUIS OLAIZOLA 'BELTZA'

mandazaina

“ soka eten eta zezena plazan lagata atera ginen ”

Lana eginez korridak ikusten gozatuko du saninazioetan. Hildako zezenak plazatik erretiratzea du egitekoa. 📌 Ainitze Agirrezabala

Nolatan hasi zinen mandazain lanean?

30 urte badira hasi ginela. Zezenak gustatzen zitzaizkigun eta aurrena Bonbillo hasi zen gizon edadetu batzuekin, eta ondoren koadrilan sartuko ginela eta hala hasi ginen.

Zer da zuen egitekoa?

Zezena hiltzen duten garaian zaldiarekin plazatik erretiratzea. 16:45erako joaten gara zezen-plazara, zaldiak prestatu eta korrida aurretik kale buelta ematen dugu. Eguzkitzanean xanpain trago bat jo eta handik zezen-plazara bueltatzen gara, korridarako.

Mandazain bezala bitxikeriarik?

Soka eten zen, eta zezena plazan lagata zitzu bizian atera ginen zaldiarekin.

Saninazioetan zein duzu egunik gustukoena?

Bezpera. Beste txispa bat dauka. Hasi goizean goizetik, txakolin batzuk edan, eta koadrilako bazkaria egiten dugu. Bazkalondoan korridara joaten gara eta primeran.

Zezenketa zalea zara, beraz?

Betidaniak gustatu izan zaizkit, baita sokamuturra ere. Orain ere kolpe ederra hartuta

nago. Miserikordia aurrean harrapatu ninduen iaz, hura biajea eraman nuena, ia bigarren pisuraino bota ninduen. Aurten ez, baina azken bost urtetan entzierroa ere korritu dut. Medikuak hala esaten dit, nire bajak beti zezenak harrapatuta izan direla.

Zezenketen aurka dagoenik ere bada.

Batzuk jarduten digute 'hiltzaileak' oihukatuz, baina nik ez dut uste gu hiltzaileak gara, ezta gutxiago ere. Baten batzuek atera egin behar dute zezena kanpora. Denetakoa dago, eta errespetatu egin behar da.

Bolondres lana al da zuena?

Lehen kobratzen genuen zerbait, baina orain dirua Miserikordiarentzat denez, bolondres aritzen gara. Zarautzik ere deitu ziguten, 3 bat urtetan. Han ederra izaten zen, joan, geurea kobratu, kristoren afaria egin eta buelta.

Noiz arte jarraitzeko asmoa duzu?

Gustura ibiltzen gara, eta ezin laga, harik eta bidaltzen gaituzten arte. Bi urtean egon nintzen lagata, baina tira egiten zidan eta berriz hasi nintzen. Esperientzia oso polita da. Zahartzen ari gara, baina badago gazte-jendea errelebua hartzeko.*



1

1. Luis Olaizola 'Beltza' mandazain jantzita.
2.-3. Gainontzeko mandazainekin, kalejiran eta zezen-plazan (ezkerretik hasita hirugarrena).



2



3

akordatzen naiz

Akordatzen naiz... sei urte nik, hartzubian gora gure etxe aldera. atarian, autoa. momentuan jakin nuen, nola nekien ez dakit, umea jaioa zena. donostiatik ekarria zen umea. neska txikia izango genuen etxean. ni praka motzetan lasterka miseriakordia parean, etxe atarian aparkatuta zegoen kotxea urrutitik ikusita. arreba jaio berria etxean. akordatzen naiz bataioa izan zela. ez naiz zeregoniaz akordatzen. parrokia-eta. akordatzen naiz etxeko balkoitik kalera txanponak bota genituela, ohitura zen moduan. festa zen, eta umeen algara, tartean, eskolako lagunena. joxe anjel, migel anjel, jose inazio... neskarik ez genuen ezagutzen, gure lagunen arrebak besterik.

akordatzen naiz zumaian, santiago hondartzan, nola tente jarri zen gure arreba hura lehenengo aldiz bere kasa. eta ni lau haizeetara hoska, hondartzako bakardade hartan, ez eguzki, lainope baizik. "ama, ama, tente dago, ez da erortzen. tente egoten ikasi du". arreba txiki jostailu handiak hondar bigunetan sartu ointxo haiek eta zutik eutsi zion bere buruari, sinistu ezinik hura, sinistu ezinik ni, bizian lehenengo aldiz inoren laguntzarik gabe zutik ikusita umea.

akordatzen naiz osaba-izeben etxean hazi zela bidanian, sei urte bete eta azpeitian eskolara hazi behar izan zuen arte. haren euskara diferenteak egiten zigun inpresioa. euskara diferenteak etxean, ohitura ezberdinak. osaba-izebenean gustu guztiak betetzen zituen neska txikiaren zailtasunak, hiru anaia-arten artean, nor bere leku bila erregina arrotz haren inguruan.

akordatzen naiz uda bat, ni zestoako hotel txiki batean lanean. bi hilabete lanean han eta bildutako diruarekin eskolako liburuak erosi nizkiola gure arrebari. akordatzen naiz jolas egiten genuela... akordatzen naiz biok donostian ginela, berak hamalau bat urte, ni irakasle ikasketak egiten, eta tartean behin joaten nintzaiola azterketaren bat prestatzen la-



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Muxu luuuzea, eta nik hari belarrira: 'asko maite haugu, izaskun'. eta haren: 'hau pailazoa'.

guntzera. haren lehenengo zigarroak, ohe azpian ezkutatuta. kontatu zidana, gauez linterna hartu eta nola ibili zen –halako baten laguntzarekin–, azterketa bila irakaslearen paper artean. hil artean gogoan eduki zuen oroitzapena.

akordatzen naiz haren boda loiolan. izeba, jan ez zituenak plastikozko poltsan gorde eta etxera eramaten. akordatzen naiz ezteibidaian joan zirela. akordatzen naiz haren semearen lehenengo urteurrena, erregaloak zekarren 'zorionak' hura umearen kopetan jarri eta argazkia egiten, oraindik gordetzen dugun argazkia.

akordatzen naiz gaixotasuna. lau urteko agonia gorabeheraz betetakoa. orain dela bi urteko saninazioak. gure azkenak betiko. azken 20 egunak. haren ondoan pasatako azken egunak. muxu luuuzea, eta nik hari belarrira: "asko maite haugu, izaskun!". eta haren: "hau pailazoa!". maitasuna adierazteko moduak, mila eta bat gehiago.✱





Osasun Arreta Ziurtagiria
duen Euskal Herriko
lehenengo hortz klinika

iberotarren plaza 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52

'zure irribarra zaintzen dugu'

www.grupohorz kari.com



BRIKOLAJEA

eurotex
P I N T U R A K



Landeta Hiribidea, 8 - AZPEITIA
tel. 943 8125 66 - mug. 607 75 88 01 - www.landetabrikodenda.com

www.eurotex.es





innovadental

jarri zure familia eskurik onenetan!

Inplantologia eta estetika hortz-klinika

→ anbulatorioaren ondoan ←

José de Artetxe, 5 · Tlf: 943 02 59 55
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

Wkabi
informatika

399€
BEZ barne

acer

Acer Aspire 5336

La salbe 39 behea 20730 Azpeitia | Tel. 943 15 01 01